

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Atal honen bitartez, gure proiektuaren balioa eta honen inguruko beharra azalduko dugu.

Gaur egun, kutsadura izugarriko arazo larria da, gure gizartean ingurunearekiko ditugun zailtasunak asko areagotzen ari dira. Nonahi aurkitu ditzazkegu gisa honetako arazoak, eta hau aldatzeko asmoz, naturarekin konprometitutako egitasmoa aurrera eraman nahi dugu; hain zuzen ere, Donostiako hondartzen garbiketan zentratuko gara.

Gure helburu nagusia Donostiako hiru hondartzetan, astero sortzen diren hondakinez beteta ez egotea da, eta horretarako, herritarren partaidetzarekin hondartzak garbitu nahi ditugu, eta kutsadura orokorra sahiestu.

Guk identifikatutako arazoa hondartzara joaten diren pertsonen hondakinak bertan botatzen dutela da, eta hauetako batzuk arrisku handia izan dezakete, adibidez, kristalekin edo beste hainbat hondakinekin mintzeko aukera dago. Gainera hondartzan botatutako hondakinek itsasoan bukatzen dute, hau kontaminatuz eta arrainak arriskuan jarritz.

Adierazita dagoen arazoari aurre egiteko proiektua sortuko dugu. Horrela ingurumenari lagunduko diogu eta kutsadura gutxiago sortuko dugu. Gure eskualdean inoiz antolatu ez den egitasmoa da, eta gure ingurumena zaintzeko balio du, batik bat.

Garbiketa hau garatzeko asmoz, larunbat eta igande goizetan bilduko gara lehenik, asteburu eta botailoetan eraturako hondakinak jasotzeko eta egun zehar hondartzara joaten direnen arriskua saihesteko. Horrez gain, astelehen arratsaldetan bilduko gara. Honek arrazoi sendo bat du, izan ere, estatistikak behatuz, garbi ohartu gara asteburuetan izaten dela mugimendu gehien egoten den momentua, beraz zikintzeko aukerak areagotu egiten dira. Horregatik, ostiral, larunbat eta ingandean, hondakin gehien sortzen diren egunak direnez, egun hauetan goizeetan, eta astelenean garbituko dugu. Horrela aste bukaeran joaten diren guztiek garbi aurkituko dute.

Donostiako hondartza bakoitzean hondakin ontziak jarriko ditugu, beti ere birziklatzeko. Behin hondakinak bilduta astean bitan, astelehenetan eta ostiraletan, hau da, ostiraletan aste guztiko zaborra hustuko dute eta astelehenetan berriz, asteburuetan jendentzak sortutako hondakinak astelehenerako desagertuko dira. Donostiako zabor mankomunitate baten laguntza baliatuz, hondakinen edukiontzia hustuko ditugu eta hondakinak erreziklatzera eramango dituzte, hondartzak garbi mantenduz eta lortutako hondakinak birziklatuz.

Parte hartu nahi duten pertsonak aurretik izena eman beharko dute, horrela aldeztu aurretik jakingo dugu zenbat partaide joango diren astelehenero, partaide hauek 11 taldeetan banatuz eta bakoitzak zein hondartza eta hondartza bakoitzeko zein eremu garbituko duen aukeratuta izango dugu. Talde bakoitzari hondartzako eremu bat garbitzea egokituko zaio.

Hondartzen garbiketa egiteko, gure webgunean erantzuten duten bezeroen artean, 5 pertsonen osatutako taldeak sortuko ditugu 11 talde sortuz, ondoren talde bakoitzari hondartza baten zati bat garbitzea egokituko zaio. La kontxa handiena denez 5 taldeei egokituko zaie bakoitzari zati bat emateko. Ondarretan aldiz kilometro karratu gutxiago dituenek 3 talderekin nahikoa izango du. Azkenik zurriolaren garbiketa egiteko 3 talde bidaliko ditugu.

Egitasmoan parte hartzen dutenek noski sari bat jasoko dute. Gaur egun badago hondakinen gaineko zerga bat gobernuari ordaintzeko hileroko. Zerga hau, herritar guztiok ordaindu beharrekoa da, baina hondartza garbitzen duten hauek, ingurunearekiko konpromezua hartzen dutela ikusirik, Donostiako Udaletxearekin akordio batera iritsi ostean, partaide bakoitzari hondakinen gaineko zergak kentzeko adostasunera iritsiko gara.

Irizpide guzti hauek jarraituz, gogo eta motibazio handiz jardungo gara buru-belarri gure proiektua aurrera eraman ahal izateko eta ideia berritzaile hau sustatzeko.